

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Grekoa II

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Xenofonte, *Gogoangarriak*, 1.1.19.

Sokrates eta haren jainkoetan sinestea

Σωκράτης δὲ πάντα μὲν ἠγεῖτο θεοὺς εἰδέναι¹, τὰ τε λεγόμενα καὶ πραττόμενα καὶ τὰ σιγῇ βουλευόμενα, πανταχοῦ δὲ παρεῖναι καὶ σημαίνειν τοῖς ἀνθρώποις περὶ τῶν ἀνθρωπειῶν πάντων.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: Σωκράτης ... βουλευόμενα.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἠγεῖτο. Jokatu aditz hori hor agertzen den denbora, modu eta bozean.
3. Izenordain honen analisi morfologikoa: πάντα. Izenordain horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: ἀνθρωπειῶν. Aipa itzazu termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Poema homerikoak.
6. Sofoklesen *Elektra*: deskriba itzazu gehien gustatu zaizkizun obraren eszenak.

¹ οἶδα-ren infinitiboa.



B AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Apolodoro, *Biblioteka* 2.5.9

Heraklesen lanetariko bat

εἶχε δὲ Ἴππολύτη¹ τὸν Ἄρεος ζωστήρα, σύμβολον τοῦ πρωτεύειν ἀπασῶν. ἐπὶ τοῦτον τὸν ζωστήρα Ἡρακλῆς ἐπέμπετο, λαβεῖν αὐτὸν ἐπιθυμούσης τῆς Εὐρουσθέως² θυγατρὸς Ἀδμήτης³.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: εἶχε δὲ Ἴππολύτη τὸν Ἄρεος ζωστήρα, σύμβολον τοῦ πρωτεύειν ἀπασῶν.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐπιθυμούσης. Jokatu aditz hori indikatiboko orainaldian, aktiboan.
3. Izen honen analisi morfologikoa: θυγατρὸς. Izen horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πρωτεύειν. Aipa itzazu termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Historiografia grekoa: Tuzidides.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: deskriba itzazu obraren azken eszenak.

¹“Hipolita” izenaren nominatiboa.

²“Euristeo” izenaren genitiboa.

³“Admete” izenaren genitiboa.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzegatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzegatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzegatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.